

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2025ko urtarrilaren 11tik 17rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025/01/14

- **LANEKO ETA GIZARTE EKONOMIAKO MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko abenduaren 31koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita hotz industrialeko industrien sektorerako Estatuko oinarrizko hitzarmen kolektiboa. **A-2025-574 xedapena- 47 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2025/01/11

- **ESTATUKO BURUZAGITZA.** Justizia Zerbitzu Publikoa. Honen akats-zuzenketa: 1/2025 Lege Organikoa, urtarrilaren 2koa, Justizia Zerbitzu Publikoaren efizientzia-neurriei buruzkoa. **A-2025-461 xedapena- 2 or.**

2025/01/15

- **EKONOMIA, MERKATARITZA ETA ENPRESA MINISTERIOA. Jarduera ekonomikoak.** 10/2025 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Jarduera Ekonomikoen 2025eko Sailkapen Nazionala (CNAE-2025) onesten duena. **A-2025-587 xedapena- 37 or.**
- **EKONOMIA, MERKATARITZA ETA ENPRESA MINISTERIOA.** Estatuaren zorra. ECM/3/2025 Agindua, urtarrilaren 14koa, 2025. urtean eta 2026ko urtarrilean Estatuaren Zorra sortzea xedatzen duena. **A-2025-588 xedapena- 17 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2024/01/15

- **OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA.** ERABAKIA, 2024ko abenduaren 17koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluarena, 2025eko ekitaldian zehar zerbitzu sanitarioengatik eta irakaskuntzako zerbitzuengatik ordaindu beharra duten hirugarrenei kobratuko zaizkien tarifak onartzen dituen. 199e xedapena- 3 or.

2024/01/16

- **GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK.** EBAZPENA, 2025eko urtarrilaren 8koa, Gipuzkoako Batzar Nagusietako lehendakariarena, honako arau hau baliozkotzeko erabakia argitaratzeko agintzen duena: 1/2024 Foru Dekretu-araua, abenduaren 17koa, 2024. urterako zenbait zerga neurri onesten dituen. 229 xedapena- 1or.
- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** 1/2024 FORU DEKRETU-ARAUA, abenduaren 17koa, 2024 urterako zenbait zerga neurri onesten dituen. 230 xedapena- 17 or.

2024/01/17

- **GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA.** 4/2024 FORU ARAUA, abenduaren 20koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2025. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen. 264 xedapena- 1 or.
- **2/2024 FORU DEKRETU-ARAUA,** abenduaren 27koa, abenduaren 15eko Kontseiluaren 2022/253 (EB) Zuzentarauaren transposizioa Gipuzkoako Lurralde Historikoko tributuen ordenamendu juridikoan sartzea onesten duena. Zuzentaru hori Batasuneko enpresa multinazionalen taldeentzako eta magnitude handiko talde nazionalentzako gutxieneko ezarpen-maila bermatzeari buruzkoa da. 265 xedapena- 4 or.

A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)

2025/01/15

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA. FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 1/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 9koa. Aldatzea abenduaren 20ko 772/2021 Foru Agindua, zeinaren bidez onesten baita 190 eredu, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan jasotzen diren atxikipen eta konturako sarreraren (lanaren etekinenak, zenbait jarduera ekonomikoenak, sarietak eta errenta egozketa batzuenak) urteko laburpenarena. Horrez gain, diseinu fisiko eta logikoak aurkezten ditu 190 eredu eta lanaren etekinenak, jarduera ekonomikoen eta sarien ziurtagiriari buruzko 10-T ereduak ordenadoren zuzenean irakurtzeko moduko fitxategiak jartzeko. **49E xedapena- 8 or.**

2025/01/17

- **FORU AGINDUAK (OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA).** Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 2/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 9koa. Aldatzea abenduaren 27ko 761/2011 eta abenduaren 11ko 880/2000 Foru Aginduak, 193 eta 345 ereduak onesten dituztenak hurrenez hurren. **58E xedapena- 9 or.**

B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2024/01/13

- **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK.** Abenduaren 27ko 4/2024 Foru Araua, tributu-neurriak onartzen dituenari buruzkoaren promulgazioaren akatsen zuzenketa. **I-36 xedapena- 1 or.**

2024/01/14

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 8/2025 FORU AGINDUA, urtarrilaren 9koa, zeinaren bitartez honako foru agindu hauek aldatzen baitira: 2211/2016 Foru Agindua, Ogasun eta Finantzen foru diputatuarena, abenduaren 15koa. Honen bidez, 193 eredu arrunta eta erraztua onesten da, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kapital higigarriaren zenbait etekinen eta Sozietateen gaineko Zergaren eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren (establezimendu iraunkorrak) zenbait errentaren gaineko atxikipenen eta kontura egindako sarreraren urteko laburpena egiteko erabili behar dena; 2282/2016 Foru Agindua, abenduaren

23koa, Ogasun eta Finantzen foru diputatuarena; honen bidez finantza-aktiboekin eta beste balore higigarri batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpena egiteko 198 eredia onesten da; 252/2000 Foru Agindua, urtarrilaren 21ekoa, Ogasun eta Finantzen foru diputatuarena, Altxorraren letrekin egindako eragiketen urteko aitortpena euskarri magnetikoan egiteko 192 eredia eta euskarri horren diseinu fisiko eta logikoak onetsi dituen; Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuaren 1487/2019 Foru Agindua, uztailaren 23koa. Honen bidez, emariei, dohaintzei, zerbitzuen doako prestazioei, ekarpenei eta baliatzei buruzko aitorten informatiborako 182 eredia onartzen da; 2942/2009 Foru Agindua, azaroaren 18koa; honen bidez 345 eredia onetsi da, ondoko hauen urteko aitortpenerako erabili beharrekoa: borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak, pentsio planak, sistema alternatiboak, gizarte aurreikuspeneko mutualitateak, bermatutako aurreikuspen planak, aurrezpen sistematikorako banakako planak, enpresen gizarte aurreikuspeneko planak eta menpekotasun aseguruak; Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 560/2023 Foru Agindua, azaroaren 9koa. Horren bidez, onetsi da 721 eredia («Atzerrian dauden moneta birtualei buruzko informazio-aitortpena») eta ezarri dira hura aurkezteko baldintzak eta prozedura; Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren 559/2023 Foru Agindua, azaroaren 9koa. Honen bidez onetsi egiten dira 172 eredia (Moneta birtualen saldoei buruzko informazioaren aitortpena) eta 173 eredia (Moneta birtualekin egindako eragiketei buruzko informazioaren aitortpena), eta aurkezteko prozedura eta baldintzak ezartzen dira. **I-35 xedapena- 33 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2025/01/17

- 13/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 13koa, zeinaren bidez onesten baita ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenta jakin batzuen atxikipenen eta konturako sarreraren urteko laburpena aitortzeko erabili beharreko 296 eredia eta haren aurkezpen moduak eta epeak ezartzen baitira. **275 xedapena- 83 págs.**
- 15/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 13koa, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga aitortzeko erabili beharreko 210 eredia onartu, horiek aurkezteko prozedura eta baldintza orokorrak finkatu, eta ez-egoiliarren tributazioari buruzko arau jakin batzuk garatzen dituen. **276 xedapena- 40 or.**
- 16/2025 Foru Agindua, urtarrilaren 14koa, zeinaren bidez zenbait zuzenketa sartzen baitira urtarrilaren 3ko 3/2025 Foru Aginduan, Altxorreko Letrekin egindako eragiketen urteko aitortpena aurkezteko 192 eredia onetsi eta hura aurkezteko epea eta modua ezartzekoan. **289 xedapena- 2 or.**

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):

2025/01/15

- **ERREGELAMENDUAK.** Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2025/38 (EB) Erregelamendua, 2024ko abenduaren 19koa. Erregelamendu horren bidez, batetik, zenbait neurri ezartzen dira EBn zibermehatxuak eta gorabeherak detektatzeko elkartasuna eta gaitasunak hobetzeko, eta haietarako prestatzeko eta erantzuteko; eta, bestetik, 2021/694 (EB) Erregelamendua (Zibersegurtasuneko Erregelamendua) aldatzen da. **Disposición L-38- 34 págs.**

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - BILBAO